



EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 19koa, zeinarekin ebatzi egiten baita honako deialdi hau: 2014-2015 ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasuneko programak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateentzako eta goi-mailako arte eta kirol irakaskuntzen ikastetxeentzako diru-laguntzetarakoa.

2014ko irailaren 29an, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak emandako Aginduaren bitartez, arautu egin ziren ondoko diru-laguntzeei buruzko arauak: 2014-2015 ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasuneko programak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateentzako eta goi-mailako arte eta kirol irakaskuntzen ikastetxeentzako diru-laguntzak (2014ko urriaren 15eko EHAA, 196. zk.).

Eranskineko 8. artikuluan esleipen-prozedura zehazten da; eta bertan honako hau ezartzen da: deialdia egiteko aginduan ezarritako betekizunak konplituz gero, eskabide guztiei emango zaie diru-laguntza.

Aipatu aginduaren eranskineko 2. artikuluan xedatzen denez, aurrekontu-zuzkidura bi ataletan banatu da: batetik, 371.200 euro, Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoak (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak (MECD) emandako laguntzako osotzeko; eta, bestetik, 700.000 euro, Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoren (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren (MECD) laguntzarik gabeko egonaldietarako.

Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoak (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak (MECD) ematen dituzten laguntzak atal baten jasotzen dira; bada, atal horretan zehaztu mugikortasunei aurre egiteko eskatutako guztizko zenbatekoa 224.150 eurokoa da. Era berean, Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoaren (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren (MECD) laguntzarik gabeko egonaldiak atal baten jasotzen dira; bada, atal horretan zehaztu mugikortasunei aurre egiteko eskatutako guztizko zenbatekoa 1.341.770 euroa da. Eskatutako zenbatekoak honako koadro honen arabera banatzen dira:

Unibertsitatea/Ikastetxea	Laguntzak osotzeko (€)	Laguntzarik gabeko egonaldietarako (€)	Eskatutakoa, guztira (€)
UPV/EHU	160.110	879.110	1.039.220
Deusto.	37.930	240.570	278.500
Mondragon	22.160	176.550	198.827
Tecnun	2.350	40.260	42.610
ADGE	1.600	5.280	6.880
Guztira	224.150	1.341.770	1.565.920

Bederatzigarren artikuluan honako hau jasotzen da: 2. artikuluko idatzi-zatietako baterako ezarri den aurrekontu-zuzkidura behar dena baino handiagoa bada (eskatutako laguntza guztien % 100 ordaindu ondoren), eta beste idatzi-zatirako ezarri dena ez bada nahikoa; horren zuzkidura haren soberakinarekin osotuko da; eta hori dela-eta, 2.1.b) artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura 147.050 eurotan gehitu da.

Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoaren (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren (MECD) laguntzarik gabeko egonaldietarako atalean zehaztu mugikortasunei aurre egiteko zuzkidura gehitu egin bada ere, ez dago

diru-zuzkidura aski eskatutako % 100i aurre egiteko; hortaz, eranskineko 8. eta 9. artikuluan zehaztutako hainbanaketa aplikatu da. Hori dela-eta, Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoaren (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren (MECD) laguntzarik gabeko egonaldien atalean sartzen diren mugikortasunei aurre egiteko eskatutako zenbatekoak % 63,12an lagunduko dira diruz. Esleitutako zenbatekoak honako koadro honen arabera banatzen dira:

Unibertsitatea/ikastetxea	Laguntzak osotzeko (€)	Laguntzarik gabeko egonaldietarako (€)	Eskatutakoa, guztira (€)
UPV/EHU	160.110,00	554.894,23	715.004,23
Deusto.	37.930,00	151.847,78	189.777,78
Mondragon	22.160,00	111.438,36	133.598,36
Tecnun	2.350,00	25.412,11	27.762,11
ADGE	1.600,00	3.332,74	4.932,74
Guztira	224.150,00	846.925,22	1.071.075,22

Hori dela-eta, aipatu aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak bete ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitatei eta goi-mailako arte eta kirol irakaskuntzen ikastetxeei diru-laguntzak ematea; baldin eta –2014-2015 ikasturtean zehar– ikasleen nazioarte mailako mugikortasunetarako eskabideak aurkeztu badituzte:

A) Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoak (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak (MECD) emandako laguntzak osotzeko:

1.- Euskal Herriko Unibertsitatea.

Diru-laguntza: 160.110 euro.

2.- Deustuko Unibertsitatea.

Diru-laguntza: 37.930 euro.

3.- Mondragon Unibertsitatea.

Diru-laguntza: 22.160 euro.

4.- Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Mailako Eskola (TECNUN).

Diru-laguntza: 2.350 euro.

5.- Vitoria-Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskola (AGDE)

Diru-laguntza: 1.600 euro.

B) Europako Ikasketa Programetarako Erakunde Autonomoaren (OAPEE) edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren (MECD) laguntzarik gabeko egonaldietarako.

1.- Euskal Herriko Unibertsitatea.

Diru-laguntza: 554.894,23 euro.

2.- Deustuko Unibertsitatea.

Diru-laguntza: 151.847,78 euro.

3.- Mondragon Unibertsitatea.

Diru-laguntza: 111.438,36 euro.

4.- Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Mailako Eskola (TECNUN).

Diru-laguntza: 25.412,11 euro.

5.- Vitoria-Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskola (AGDE)

Diru-laguntza: 3.332,74 euro.

Errekurtsoak:

Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik harako hilabeteko epean, bat etorriaz Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 107.1 artikuluetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 19a.

Unibertsitateetako zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER ALONSO ALDAMA.

